11 Udal Aldizkaria
maiatza 2007

# BERGARA

BERGARAKO UDALA

www.bergara.net






Udalak zuen iradokizunak jasotzeko bide desberdinak eskaintzen dizkizue; aldizkari honetan aurkituko duzuen iradokizun orria bete eta Udaltzaingoaren ondoan dagoen kutxatilan sartu, www.bergara.net web orrian.

Iradokizun orria barnean

*El Consistorio ofrece dos posibilidades para hacer llegar vuestras sugerencias. La primera es rellenar la hoja adjunta y depositarla en la urna que se encuentra junto a la Policía Municipal, y la segunda, mediante la web www.bergara.net*

*Incluye hoja de sugerencias*

11

# HERRIAREN PARTE HARTZEA BERMATU DA PLAN OROKORREAN

Legeak agintzen duenez, Bergaran Hirigintzarako Batzorde Aholkularia sortu da, Hiri Ordenaziorako Plan Orokorra egiteko. Hala ere, legeak aurreikusten du batzorde hori Plan Orokorra egiten denerako sortzea. Bergarak, baina, aurrea hartu dio eta lehenago sortu du Batzorde Aholkularia. Hori dela-eta, Plana egin baino lehenago bost batzar egin ahal izan dira, herriaren parte hartzea bermatuta gelditUz.

Bergara aitzindaria izan da herriaren parte hartzea bermatzen hirigintza planeamendua garatzeko orduan. Lurzoruaren Lege berriak jasotzen duen figura da Batzorde Aholkularia eta derrigorrezkoa da Plan Orokorraren aurrean. Baina Bergarak hori baino lehenago sortu zuen batzorde hori, lehenengotako herria izan zen hori egiten. Horrek, besteak beste, ahalbideratu du Plan Orokorra garatzeko orduan herriaren parte hartzea bermatu dela. Dagoeneko bost batzar egin dituzte.

Batzorde Aholkulariak hirigintza garapenari buruzko aholkularitza eman behar du eta Bergarako Udaleko parte hartzea bermatzeko organo osagarria da. Derrigorrezko figura juridikoa da eta ordezkari politikoak, elkarteak eta hiritarren kolektiboak batzen ditu.



Hainbat betebehar du. Horien artean nabarmenenak dira aztertzea eta jakitea zenbat ikerketa, programa, gidalerro eta ekintza gidaritza egingo diren herriaren planeamendu orokorra zehazteko, prozesu horretan kolaboratzeko.

Batzordeak funtsezko betebeharra du Bergarako Hiri Ordenaziorako Plan Orokorrean. Plan horrek Bergarako hirigintza garapena planifikatuko du hurrengo 15 urteetan. Hala, oraingo legeak agintzen duenez, herritarren parte hartzea bultzatu behar da holako prozesu garrantzitsuetan eta taldeak aztertu beharko du agiria.

Herriko hirigintza garapenerako garrantzitsuak diren gaietan ere erabakitzeko gaitasuna izango du Hirigintzarako Batzorde Aholkulariak, esate baterako lurzoruen birkalifikazioan edo Plan Orokorraren aldaketetan.

Organo horrek erabakiko dituen irizpenak erabakigarriak izango dira, ondoren osoko bilkurak egoki ikusten dituen ebazpenak egiteko. Erabakitzeko gaitasuna duen organoa da. Dena dela, erabaki horiek inoiz ez dira lotesleak izango.

### CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO

* Figura obligatoria para el planeamiento urbanístico que recoge la nueva Ley del Suelo, para fomentar la participación popular. Relaciona a representantes políticos, asociaciones y colectivos populares

* Bergara ha sido uno de los primeros municipios en crear el Consejo, anticipándose a los plazos previstos en la Ley

* Hasta la fecha ha llevado a cabo cinco reuniones, garantizando la participación popular en la elaboración del Plan General de Ordenación Urbana

* Dispone de capacidad propositiva en aspectos como la modificación del Plan General. Sin embargo, esas propuestas serán preceptivas pero no serán vinculantes. En cualquier caso, la decisión municipal que contradiga la propuesta del Consejo Asesor deberá ser justificada.



| HIRIGINTZARAKO BATZORDE AHOLKULARIA<br>CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO | |
|---|---|
| **OSAKETA** | **COMPOSICIÓN** |
| **Presidentea:** Bergarako Udaleko Alkatea<br><br>**Presidenteordea:** Hirigintza saileko Zinegotzi Delegatua<br><br>**Bokalak:**<br>* Hirigintza eta Obretako Batzorde Informatzaileko partaide guztiak<br>* BEDELKAR, Merkatarien Elkarteko ordezkari bat<br>* MENDIA BIZIRIK Elkarteko ordezkari bat<br>* Bergarako Kirol Elkarteko ordezkari bat<br><br>**Partaide gonbidatuak:** (Ahotsarekin baina botorik gabe)<br>* Zabalotegiko Auzokideen Elkartea<br>* Fraiskozuri Auzokideen Elkartea<br><br>**Idazkaria:** Hirigintza saileko funtzionario bat | **Presidente:** Alcalde de Bergara<br><br>**Vicepresidente:** Concejal Delegado de Urbanismo<br><br>**Vocales:**<br>* Todos los componentes de la Comisión Informativa de Urbanismo<br>* Un representante de la Asociación de Comerciantes BEDELKAR<br>* Un representante de la Asociación MENDIA BIZIRIK<br>* Un representante del Club Deportivo Bergara<br><br>**Participantes invitados:** (Con voz pero sin voto)<br>* Asociación de Vecinos de Zabalotegi<br>* Asociación de Vecinos de Fraiskozuri<br><br>**Secretario:** Funcionario del Área de Urbanismo |

## BETEBEHARRAK

- Dagokien administrazioek egin behar dituzten ikerketa, programa, gidalerro eta ekintza gidaritzak zeintzuk diren jakingo du Hirigintzarako Batzorde Aholkulariak, egiteko prozesuan esku hartzeko. Kasu guztietan informazioa zabalduko du, behin Plan orokorraren idazketa teknikoa hasten denean.

- Ahalmena izango du eskatzeko, jakiteko eta txosten bat egiteko hirigintza ordenamenduaren beste edozein plan edo lanabesi buruzkoa.

- Ikerketa agirietan eta egoki ikusten dituen gaien gaineko txostenetan Batzordearen esku-hartzea agertuko da. Horietan administrazioentzat lotesleak izango ez diren erantzun edo aukerak azal daitezke.

-Planeamendua onartzen duen Administrazioaren aurrean, Batzordeak aurkeztuko dituen proposamen edo aukerak, baina Planeamenduaren behin betiko onarpenaren ebazpenean azaltzen ez direnak, erantzun egin beharko dira eta erantzun motibatuak izan beharko dira.

## FUNCIONES

- El Consejo conocerá cuantos estudios, programas, directrices y líneas de actuación elaboren o establezcan las administraciones responsables de la formulación del planeamiento general del municipio para coadyuvar a su elaboración. Informará, en todo caso, una vez iniciada la redacción técnica del Plan General.

- Podrá pedir, conocer y emitir informe de cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística.

- La intervención del Consejo se manifiesta en documentos de análisis e informe de las cuestiones que tome en consideración, que podrán contener respuestas o alternativas de carácter no vinculante para las administraciones públicas.

- Las propuestas o alternativas presentadas por el Consejo ante la administración que apruebe el planeamiento y que no sean atendidas en la resolución de aprobación definitiva del mismo deberán ser contestadas motivadamente.



■ Victoriano Gallastegi

# AGUR BEROA

Herritar maitea,

Hogeita lau urtetan jarraian eta bete-betean Udalean aritu ondoren (zortzi urtetan zinegotzi, eta azkeneko 16tan Alkate), agur esateko unea heldu zait. Bizitzan, jakina denez, gauza guztiak hasi eta amaitu egiten dira. Beste lanbide edo jardueretan ez bezala, nik urte hauetan guztietan egin dudana zeuei esker izan da posible. Horrexegatik, ezer baino lehen, eskerrak eman behar dizkizuet nigan izan duzuen konfiantzagatik, horri esker egon bainaiz 24 urte hauetan kargu hau betetzen. Eskerrak zuei guztiei ere, herritar, elkarte eta talde, adeitasunez eta errespetuz tratatu nauzuelako. Era berean, ezin ditut ahaztu 24 urte hauetan zehar udala gobernatzeko lanetan nirekin batera aritu diren guztiak, udalaren gestioan egunero-egunero sortzen ziren arazoei aurre egiten lagundu didaten guztiak, bai eta nirekin batera Udalbatza osatu duten guztiak ere, bestelako pentsaera politikoak izan arren nirekin izan dituzten harremanak zintzoak eta zuzenak izan direlako.

1983an Bergarako Udalean ibilbidea hasi nuenetik gaur arte aldaketa nabarmena igarri dut gizartean oro har eta, bereziki, Bergarako Udalerrian. Badirudi, nik uste, komunitatean eta bere arazo sozial eta politikoetan pentsatzeari utzi eta norbere buruan pentsatzen hasi garela; gizartea indibidualista bihurtzen ari da, bizi kalitate handiko gizartea, non bakoitzak garbi daukan zeintzuk diren bere eskubideak baina ahaztu egiten ditu sarri komunitatearen eta guztion interesen alde egin beharreko lana, horrek eskatzen duen inplikazioari eta lan desinteresatuari uko eginaz. Aldaketa hau, baliteke munduko bazter guztiak arriskupean jartzen ari den globalizazioaren ondorioa izatea; beraz, horrek gogoeta serioa egitea eskatzen digu eta egin ere hala egin beharko genuke.

Bestalde, immigrazioaren fenomenoa dugu; fenomeno berria da eta, logikoa denez, ez da gure udalerrian bakarrik gertatzen, baina prest egon behar dugu horri erantzun egokia eta zuzena emateko. Gure artera heldu diren teknologia berriek aukera handia eskaintzen digute, baina, era berean, beste erronka baten aurrean jartzen gaituzte. Bestalde, iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua ditugu; hauek, nik uste, erakundeen eguneroko funtzionamenduan gero eta garrantzi handiagoa izango dute hurrengo legegintzaldietan eta hala izan behar du. Gauza bera esango nuke etxebizitzaren gaiaz, gure gizarteak eta, zuzenean, gure gazteek aurrean duten beste arazo handietako bat baita. Lau zutabe horiek eta gure Euskadi maitean bakea, adiskidetasuna eta normalizazioa behin betiko lortzea dira eta izango dira, nik uste, hurbileneko etorkizunean heldu beharreko gai edo arazoetako batzuk.

Ez naiz nostalgikoa, baina nolanahi ere, gainera datorkiguna modu globalean marrazteaz gain, atzera begiratzeko unea da orain arte egindakoa eta betetako helburuak ikusteko. Horrela, Union Cerrajerari lurrak erosi eta, haiek birgaitu eta eraberritu ondoren, Labegaraieta industrialdea eratu zen bertan; Udaletxea berritu genuen; Agorrosingo ekipamendu berria eraiki zen, bertako bereizgarriena igerilekuak izanik; udalerrian hondatuen zeuden aldeak, hala nola Urteaga kalea, berreskuratzen hasi gara (lanok datozen urteetan bukatuko dira); Ibargarai kalean etxebizitza gunea garatzea; Udalerrian industrialde berriak garatzeko emandako bultzada (Larramendi, Murinondo, San Juan, Ipiñarri, Mekolalde); Seminarioaren zesioa UNEDeko patronatuaren alde eta, beraz, Bergarako Udalaren eta Aranzadi Ikastolaren alde (horrela auditoriuma eraiki ahal izango da); Aroztegi jauregiaren beheko solairua erostea eta egokitzea; Zubieta 1 eta 3 eraikinak botatzea (hemendik gutxira ibilgailuak Infernokuatik sartu ahal daitezen), Martinez de Iralako haurtzaindegia edo haurreskola publikoa; Mizpirualde Zahar Egoitzaren eraberritzea eta handitzea; Miguel Altuna institutu berria Surrako mendi hegalean eraikitzeko gestioa; gazteentzako lokala; San Martzialgo gerriko berdea; Artekalea, Arruriaga, Goenkalea, Juan Irazabal, Domigo Irala kaleak berrurbanizatzea; herria berrantolatzea, udalerriko hiri eremuan sartuta zeuden industrialdeak lehengoratuta eta etxebizitza alde bihurtuta (Algodonera, Movilla, Tornilleria Deba), eta Hijos Arturo de Narvaiza merkataritza sozietatea zegoen eremuaren egokitzapena. Ekintza horiek guztiak osatzeko, hainbat erakundek udalerriko azpiegitura handietan egindako diru askoko inbertsioak aipatuko nituzke, esaterako, Eibar-Gasteiz autobidea, Bergara ekialdeko saihesbidea (Beasain-Durango ardatza), Saneamendu sarearen berrikuntza eta Epele eta Mekolaldeko ur araztegiak. Horri guztiari gehitu behar zaio laster izango dugun tranbia, bai eta Euskal Herria Estatuko eta Europako gainontzeko herriekin zuzenean lotuko duen abiadura handiko tren sarea ere. Azken honek Bergara komunikabideen korapilo erakargarri bihurtuko du, bere biztanleen ongizatea eta bizi kalitatea bermatuta.

Plan Orokorraren errebisioa, hasierako onarpena daukana, udalaren beste giltzarrietako bat dugu, udalerrian hemendik gutxira egingo diren lanen euskarria izango baita. Plan Orokorra garatuta babestutako etxebizitza- BOE- (horietako batzuk alokairuan emateko -Tornilleria Deba-) eta etxebizitza tasatu gehiago eraiki ahal izango dira, gazteek beraien lehen etxebizitza eskuratzea errazago izan dezaten.

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak era koordinatuan egindako lana eta eskainitako laguntza funtsezkoak izan dira udalerrian inbertsio asko gauzatu ahal izateko. Hori horrela, une hau aprobetxatuko dut eskerrak emateko erakunde horiei guztiei eta udal honen administrazioaz arduratzea tokatu zaidan urte hauetan zehar erakunde horietan zuzendari lanean ari izan diren guztiei. Era berean, ez nuke ahaztu nahi udal langileen aldetik izan dudan laguntza, eskertzeko modukoa izan baita; izan ere, egunero lanera etorri beharraz gain esku artean izan dituzten hainbat gairi ilusioz eta kontu handiz heldu diote. Eskerrik asko.

Esan dezaket urte hauetan guztietan (niretzat begien ireki-itxi batean pasatu direnak) denetik tokatu zaidala, bai maila publikoan bai pribatuan, eta nire bizitzako urterik hoberenak laster amaituko dudan lan honetan eman ditudala. Baina, ziur egon, harro eta pozik nagoela Bergarako herriaren (jaiotzen ikusi ninduen herria) eta zeuen ordezkari izan naizelako. Ahalegindu egin naiz herri honen eta bere interesen esanetara egoten, bai eta agindutako lana zintzo-zintzo betetzen ere.

Azkenik, udal aldizkari honek ematen didan aukera hau aprobetxatuta, barkamena eskatu nahi diet huts egin diedala edo beraien eskaerei edo erreklamazioei nahi zuten bezala erantzun ez diedala uste duten guztiei. Zintzo eta denekin berdin jokatzen saiatu naiz, eskaera edota erreklamazioa nondik zetorren begiratu gabe; halere, badakit ibilbide luze honetan akatsak egingo nituela; beraz, era apalean eta bene-benetan barkatzeko eskatzen dizuet nire ekintzekin edo hutsegiteekin kaltetuak sentitu zareten guztioi.

Eskerrik asko Bergara. Eskerrik asko bergararrak. Betiko.





# ZERBITZUAK Legegintzaldia

Estimad@ vecin@:

Después de veinticuatro años intensos y continuados dedicados a la actividad municipal (ocho como concejal y los últimos 16 como Alcalde), llega la hora de decir adiós. En la vida es obvio que todo tiene un inicio y también un final. A diferencia de otras profesiones u actividades, la que yo he desempeñado todos estos años, ha sido posible gracias a vuestro apoyo. Por ello debo agradeceros, antes que nada la confianza depositada en mi persona para el desempeño del cargo que he ostentado estos 24 años. Asimismo, debo dar las gracias al conjunto de vecin@s, asociaciones, colectivos por el trato cordial y respetuoso que me habéis dispensado. Igualmente no puedo olvidar a quienes durante estos 24 años han sido compañeros en las labores del gobierno municipal, con los que me ha tocado afrontar el día a día de la gestión local, así como a los compañeros de corporación que independientemente de su adscripción política han tenido siempre una relación correcta y afectuosa hacia mi persona.

Desde 1983 que comencé mi andadura en el Ayuntamiento de Bergara hasta el día de hoy, he observado un cambio ostensible en la sociedad en general, al igual que en el municipio de Bergara en particular. Diría yo que hemos pasado de pensar más en la comunidad y en los problemas sociales y políticos que la acechan, a pensar más en primera persona, a concebir una sociedad individualista, con gran calidad de vida, donde cada uno tiene claros su derechos, pero se olvida, muchas veces, del trabajo a favor de la comunidad y la defensa de los intereses generales, rehusando a la implicación personal y desinteresada en este cometido. Creo que este apartado, que posiblemente sea consecuencia de la globalización que amenaza a todos los rincones del mundo, invita e incluso obliga a una seria reflexión.

Por otro lado, el fenómeno de la inmigración, ha supuesto una novedad, que nos obliga a prepararnos para dar una respuesta adecuada y correcta a esta cuestión que, lógicamente, se extiende más allá de nuestro municipio. La llegada de las nuevas tecnologías ha supuesto un nuevo reto y una gran oportunidad, a la vez, para la sociedad actual. La sostenibilidad y respeto hacia el medio ambiente, van a ser otros apartados que creo que tienen que ocupar posiciones más determinantes en el día a día del funcionamiento en todas las instituciones en en las próximas legislaturas, al igual que la vivienda, que es otro de los grandes problemas ante los que se enfrenta nuestra sociedad, y más directamente nuestra juventud. Estos cuatro pilares junto con la definitiva pacificación, reconciliación y normalización de nuestra querida Euskadi, creo que son y van a ser los problemas y/o cuestiones a abordar durante el futuro más inmediato.

No soy nostálgico, pero en cualquier caso, además de dibujar el futuro que se nos avecina con una visión global, es el momento de mirar hacia atrás y recordar el trabajo realizado y los objetivos cumplidos. Así, la compra a Unión Cerrajera de sus terrenos, que tras su posterior rehabilitación y regeneración se materializaron en el industrialdea de Labegaraieta; la rehabilitación de la Casa Consistorial; el nuevo equipamiento deportivo de Agorrosin, con las piscinas como estandarte; la recuperación de zonas degradadas en el municipio, como la calle Urteaga (que se culminará durante los próximos años); el desarrollo residencial de la calle Ibargarai; el impulso para el desarrollo de nuevas zonas industriales en el municipio (Larramendi, Murinondo, San Juan, Ipiñarri, Mekolalde); la cesión del Seminario a favor del Patronato de la UNED y por ende a favor del Ayuntamiento de Bergara (que posibilitará la construcción de un auditorium) y de la Ikastola Aranzadi; la adquisición y readecuación del bajo del palacio Aroztegi; la demolición de Zubieta 1 y 3 (para abrir en un futuro próximo, el acceso rodado por Infernokua), la guardería o haurreskola pública de Martinez de Irala; la remodelación y ampliación de la Residencia Mizpirualde; la gestión para la construcción del nuevo Instituto Miguel Altuna en la falda de Surra; el local para l@s jóvenes; el cinturón verde de San Martzial; la reurbanización de las calles Artekalea, Arruriaga, Goenkalea, Juan Irazabal, Domingo Irala; la reordenación urbana, mediante la regeneración de zonas industriales sitas en la trama urbana del municipio y su transformación en zonas residenciales (Algodonera, Movilla, Tornillería Deba), así como la adecuación del ámbito donde se ubicaba la mercantil Hijos de Arturo Narvaiza. Todos estas actuaciones, han sido complementadas con cuantiosas inversiones materializadas por otras instituciones en grandes infraestructuras en el municipio; así, la autopista Eibar-Vitoria, la variante este de Bergara (eje Beasain-Durango), la red de saneamiento con la construcción de las depuradoras de Epele y Mekolalde. A todo ello hay que unir la reciente llegada del tranvía, así como la conexión directa que propiciará la red ferroviaria de alta velocidad de Euskal Herria con el resto del Estado y Europa, situando a Bergara en un atractivo nudo de comunicaciones, que garantiza el bienestar y calidad de vida de sus habitantes.

La revisión del plan general que cuenta con la aprobación inicial, es otro eje clave donde pivotará el futuro más inmediato del municipio. Mediante su desarrollo vamos a posibilitar que se construyan más viviendas protegidas -VPO- (algunas de ellas en alquiler -Tornillería Deba-) y tasadas, al objeto de facilitar el acceso de l@s jóvenes a su primera vivienda.

La colaboración y actuación coordinada que hemos tenido con la Diputación Foral y el Gobierno Vasco han sido claves en la materialización de muchas inversiones en el municipio. Es el momento para el agradecimiento hacia las citadas instituciones y hacia las personas que las han regido durante estos años, que me ha tocado dirigir la administración municipal. Asimismo, no quisiera olvidar la inestimable colaboración que he tenido por parte de l@s trabajadores-as del Ayuntamiento, añadiendo a su cotidiana obligación laboral, la ilusión y cariño con que han abordado el sinfín de cuestiones que han tenido entre manos. Eskerrikasko.

Puedo decir que durante estos largos años (que para mi han transcurrido en un abrir y cerrar de ojos) me ha tocado vivir todo tipo de avatares, tanto en el plano público como en el privado, dedicando los mejores años de mi vida al cometido que en breve pondré fin. Pero os puedo decir de todo corazón que ha sido un orgullo y un placer para mi representar a Bergara (al municipio que le vio nacer a uno) y a vosotr@s. Me he esforzado en servir al municipio y sus intereses y ser fiel al cometido encomendado.

Por último, quiero aprovechar la ocasión que me brinda esta revista municipal, para pedir disculpas a tod@s aquell@s con las que haya podido fallar o no haya podido atender de la manera que esperaban sus solicitudes o reclamaciones. He procurado ser ecuánime y atender las solicitudes sin mirar quien las realizaba. En cualquier caso reconozco que en esta dilatada andadura haya podido cometer errores, por lo que os pido disculpas de la manera más humilde y sincera a cuantos os sintais perjudicados con mis actos u omisiones.

Gracias Bergara. Gracias bergareses-as. Hasta siempre.



## Udal Euskaltegia tokiz aldatuko dute



Mizpirualde egoitza handitzeko eta egokitzeko lanak direla eta, gaur egun Udal Euskaltegia hartzen duen eraikina eraitsi behar da. Horrek euskaltegirako kokapen berria eskatzen du.

Udal Azoka izango da Euskaltegiak behin behingoz izango duen kokapena. Horretarako, Udalak esleitu egin du Udal Azokaren lehen solairua errehabilitatzeko proiektu teknikoa idaztea. Iñigo Imaz Murgiondo arkitektoak eskuratu du esleipena eta berak izango du proiektuaren idazketa, segurtasun, osasun azterlan, eta kalitate kontrolaren ardura.

## El corredor Beasain-Durango evitará trastornos a muchos conductores

El proceso de desdoblamiento de la actual carretera que une Bergara con Urretxu sigue su curso y actualmente se encuentra en proceso de licitación la redacción del proyecto de construcción.

Con la renovación de esta infraestructura, que se inscribe en el Corredor Beasain-Bergara-Durango, incluído en el Plan General de Carreteras del País Vasco, se podrá conectar directamente la AP-1 en Bergara con la N-1 en Beasain.

El tramo de carretera que unirá nuestra localidad con Urretxu tendrá casi 10 km de longitud y conllevará entre otras ventajas, poder salvar el puerto de Descarga mediante un túnel.



Las obras para el desdoblamiento del vial comenzarán el año próximo y se prevé que finalicen en el año 2.010. El presupuesto total de la obra se ha determinado en 120 millones de euros.

## Modificación de Ordenanza

La Ordenanza municipal que regula las actuaciones de modificación de uso terciario a residencial en locales de planta baja existentes en suelo urbano residencial se ha modificado. En concreto, el 2º párrafo del artículo 3-2.

Según el nuevo texto aprobado inicialmente, se deberán cumplir las condiciones constructivas dispuestas en la Orden de 30-12- 2002 del Consejero deVivienda y Asuntos Sociales, por las que aprueban las Ordenanzas de Diseño de Viviendas de Protección Oficial, salvo en lo referido a la superficie de la nueva vivienda, que podrá ser superior a 90 m2.



## Gaizki aparkatzeagatik jarri dira isun gehienak 2006an

Udaltzaingoak isun gehiago jarri zituen iaz. 2005ekin alderatuta, %52'9 gehiago. Igoera handi horrek azken urteetako zenbakirik altuenetara gerturatzen du isunen kopurua.

Isunak jartzeko arrazoi nagusia gaizki aparkatzea da. Guztira 527 isun jarri zituen Udaltzaingoak horregatik. Erdialdean egoten da arazorik handiena aparkatzeko eta han jartzen dira isun gehienak, batez ere Ibargarain. Irizarren, San Martin plazan, Masterrekan, Ariznoan, Ramon Oiarzabalen, Bideberrin eta Kruz Gallastegin. Arazo handiak egoten dira aparkatzeko eta horrek isla du isun kopuruetan.

Gaizki aparkatzeko erak eta tokiak ugariak dira. Ohikoena debekatuta dagoen tokietan aparkatzea da. Horregatik 527 isun jarri ziren iaz. Zigorra jasotzeko beste arrazoi bat izaten da behar baino denbora gehiago izatea toki batean aparkatuta autoa. Beste batzuetan autoen joan etorria eragotzi egiten da, espaloien gainean aparkatzea zigorrerako beste arrazoi bat da eta taxien geltokian, zamaketa lanetarako egokitutako tokietan edo elbarrituen aparkalekuetan uzteagatik autoa ere jarri dira isunak.



Isun gehienak Bergarako bizilagunei jarritakoak dira: 3.235etik, Bergararrek 1.877 notifikazio jaso zituzten. Aplikatutako isun guztiak batzeak suposatzen du 77.630 euro. Hala ere, urte amaieran isunen %61'55 zeuden kobratuta, guztira 45.476 euro. Bertan behera 147 isun gelditu ziren.

## Gabiria dorretxearen konponketa amaitzen ari dira

Iazko udan hasitako lanek aurtengo udan ikusiko dute amaiera eta Gabiria dorretxea guztiz konponduta eta apainduta egongo da.



Dorretxearen jabegoa Udalarena da, baina Tavex Algodonera S.A. enpresarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, enpresa horrek izango du bere esku dorrearen erabilera datozen 30 urteetarako. Dorreak guztira 900 m2 ditu erabiltzeko modukoak. Fatxada konpontzeko eta txukukntzeko lanak bukatuta daude eta orain barruko azken ikutuak egiten dabiltza.

Eraikuntza birgaitzeko aurrekontua 1.600.000 euro da. Erdia Udalak hartu du bere gain eta beste erdia Tavex Algodonera enpresak.

Tavex Algodonera S.A. enpresak bere bulego orokorrak Gabirian jarriko ditu. Bulego horiek dorretxearen beheko solairuan jarriko dituzte eta lehen solairuaren erdia ere hartuko dute.

Lehen solairu hori, esan bezala, banatuta egongo da. Bulegoek hartzen ez duten beste erdian Bergarako ehungintzari buruzko erakusketa bat jarriko dute.

Bigarren solairuan bulego gehiago jartzeko asmoa dute. Hiru solairu horietaz gainera, lur azpiko beste bat ere egokitu dute eta hura artxiboa gordetzeko tokia izango da.

Asmo guztien arabera, Tavex Algodonera S.A. enpresa irailean hasiko litzateke dorrea erabiltzen, bere jardunerako. Han lanean hasi ondoren, inaugurazio ofiziala urrian egiteko asmoa dute.

Bergarak historia zabala du ehungintzaren inguruan eta horren lekuko izango da Gabiria dorrea. Orain, hori jasoko duen erakusketa osatzeko materiala batzen ari dira.

## Domingo Irala kalea txukun jarriko dute herriko jaietarako

Domingo Irala kaleko lanak egiten ari zen OZIO enpresak lanak bertan behera utzi ondoren, Udalak abian ditu obra hori berriro abiatzeko tramite guztiak.



Une honetan, hala ere, lanek etenik izan ez balute bezala, Udalak kale horretan lan berezi bat egin beharko du eremu hori txukuntzeko Pentekoste jaietarako. Izan ere, eremua orain dagoen bezala ezin da utzi jaietarako, jende ugari biltzen den tokia delako eta arriskuak ekidin behar direlako. Udalak egokitzapen lan horiek gainkostorik gabe egingo ditu.

Jaiak amaitu ostean, ekainean berriro tramite guztiak hartuko dituzte esku artean Udaleko teknikariek eta guztia gertatuko dute Domingo Irala kaleko lanak behar bezala amaitzeko.

## Cambios profundos en el Real Seminario, tras la cesión al patronato UNED

Tras largas negociaciones que se han prolongado durante años, el Real Seminario es en la actualidad patrimonio de Bergara. El Estado cedió el Real Seminario al Patronato UNED y éste último ha cedido al Ayuntamiento el uso de parte del edificio.

Actualmente se encuentra en proceso de redacción el proyecto de adecuación del Auditorium que ocupará la iglesia del edificio.

Próximamente finalizará ese proceso de redacción del proyecto y tras la adjudicación de las obras, se prevé que las obras de acondicionamiento duren 15 meses, por lo que en 2008 se espera que esté finalizado el Auditorium.

Será un edificio polivalente que también albergará otro tipo de actividades culturales.

Por otro lado, tras la adquisición del patio del Real Seminario por parte del Ayuntamiento, el Consistorio ha iniciado los trámites correspondientes para la redacción del proyecto para ubicar allí 200 aparcamientos .

Además la empresa Albayalde ha finalizado la redacción del proyecto técnico para desmontar el retablo de la iglesia del Real Seminario, transportarlo hasta las instalaciones donde ha de ser restaurado y, tras su restauración, recolocarlo porsteriormente.



# [IKUSTEKOAK]



01




02




04



03








05













06





07







08









09




10

**01**
Giltzadun pibotea jarri dute Ikerleku kalean sartzeko. Goenkalen ere jartzea aztertzen ari da Udala.
Iinstalado un pibote con mecanismo accionado de apertura para acceder a la calle Ikerleku. Se estudia el sistema para Goenkale.

**02**
Bitorianatxo da aurtengo Pentekoste jaietako kartelaren irudia.
Bitorianatxo acapara este año el cartel de las fiestas de Pentecostés.

**03**
Egoitz Lasa ipuin kontalaria etorriko da ekainaren 3an. Agorrosinen 17:00etan
El cuentacuentos Egoitz Lasa visitará Bergara el 3 de junio. En Agorrosin a las 17:00

**04**
Ia 500 lagunek hartu dute parte aurten Koldo Eleizalde literatura lehiaketan.
Casi 500 participantes en la XXII edición del concurso literario Koldo Eleizalde.

**05**
“Zorionak Ama  izango zara” liburua argitaratu dute ibarreko Euskara Zerbitzuek ama izango direnentzat..
Los Servicios de Euskara de Debagoiena han publicado el libro “Zorionak Ama izango zara” para las futuras madres.

**06**
Aurten ere Saharako haurrak oporretan ekartzeko ahaleginak egiten ari dira Bergaran.
Otro año más se están haciendo esfuerzos para traer a niños saharauis en vacaciones..

**07**
Hitzarmena sinatu da Aspe enpresarekin 2007an profesionalen partiduen gutxieneko kopuru bat jokatzeko.
Se ha firmado un acuerdo con Aspe, que regula un mínimo de partidos profesionales durante el 2007.

**08**
Mundumira jaialdia Aretxabaletan egingo da aurten. Ekainaren 1, 2 eta 3an.
El festival Mundumira se celebrará en Aretxabaleta los día 1, 2 y 3 de junio.

**09**
Negu epelaren ostean, udaberriaren hasieran etorri zaigu aurten elurra.
Tras un invierno con temperaturas altas, la nieve nos visitó al comienzo de la primavera.

**10**
Hotza joan ostean, udaberria sasoi ederra da parkeetan lasai egoteko.
Pasado el frío, la primavera invita a gozar de los parques.

# ETORKINAK BERGARAN.
## 2006ko Txostena

**Badira bi urte Bergarako Udaleko Ongizate Sailak herriko egoera honen azterketari ekin ziola eta esfortzu horren ondorioz 2004 eta 2005eko ikerketek argia ikusi zuten, ezinbestekoa deritzogulako errealitatearen ezagutza edukitzea edozein ekimen martxan jarri aurretik. 2006ko egoeraren ikerketa honek aurreko biak osatu eta datu berriak ematen dizkigu.**



Euskal Herrian bezala, Bergaran ere azkeneko bost - sei urteetako fenomeno bihurtu da inmigrazioa. Datu aipagarri bezala esan daiteke 2000. urtean 67 etorkin besterik ez zeudela erroldaturik Bergaran, hau da, orduan %0,4 besterik ez ziren. Gaur egun berriz, dagoeneko 726 ditugu; beraz, sei urtetan kopurua %1000 baino gehiago igo da. Argi dago gainera, fenomeno honek ez duela gelditzeko itxurarik eta herriarentzat erronka handia ekarriko duela, integrazio egoki bat lortu nahi bada, behintzat.

Aipatu gaur egun etorkinen etorrerari esker bertakoen jaitsiera konpentsatu egiten dela. Hau da, grafikoan ikusi daitekeen bezala, etorkinei esker Bergarako biztanleriaren kopurua 14.800 pertsonatik gora mantentzen ari da.

| | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|
| **Bertakoak** | 14.409 | 14.295 | 14.087 |
| **Atzerritarrak** | 461 | 552 | 726 |
| **Bergarako biztanleria** | **14.870** | **14.847** | **14.813** |

2006ko datu zehatzei begira, aipatu beharra dago 174 pertsona berri etorri direla (%23). Hala ere, agian bereziena da 2006an etorritakoen erdia baino gehiago boliviarrak direla. Horri esker momentu honetan Bolivia Bergarako etorkin kopuru handiena duen herrialdea izatera pasa da.

Kezkatzeko datu bat ere aipatu beharra dago: etorkinen kontzentrazioa ematen ari dela herriko kale eta auzo jakin batzuetan, gune horiek ghetto bihurtzeko arriskuarekin.

Inmigrazioaren jatorriari dagokionez, Bergara nortasun berezia hartzen ari da. Jatorri jakineko bi populazio nabarmentzen ari dira herrian (Bolivia eta Pakistan), eta etorkizunean joera hori indartuz joango dela aurreikusi daiteke. Honekin batera, aurten Bergarak populazio ezberdindua daukala ere ikusi da; Bergarako kolektibo nagusiak) ez baitira EAE-koen berdinak.

Populazioaren piramideari erreparatuz gero, eta ikerketaren beste datu aipagarri bezala, etorkinen gehiengoa haurrak ekartzeko adinean dagoela ikusten da, kopuru osoaren %57 21-40 urteko adin tartean kokatzen delako, hain zuzen ere. Datu hau ere aurrerantzean kontuan hartzekoa izan beharko da (aipamen moduan, aurten dagoeneko 10 haur jaio direla). Gainera, nabarmendu beharra dago kolektibo honen jaiotza tasak gora egin dezakeen dudarik ez dagoela.

Herriko ikuspuntua osatzeko helburuarekin, Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonen artean, une honetan, etorkinak soilik %15 direla esan behar da, iaz baino puntu bat gutxiago.




| BERGARA ETA EAE-N ARTEKO DATUEN KONPARAKETA | | |
|---|---|---|
| **JATORRIA** | **% EAE** | **% Bergaran** |
| Kolonbia | % 13 | % 5 |
| Ekuador | % 9 | % 3 |
| Maroko | % 8´9 | % 9 |
| Portugal | % 7´5 | % 11 |
| Errumania | % 7´4 | % 2 |
| Bolivia | % 7´2 | % 21 |
| Pakistan | % 1´2 | % 16 |



# Lagun ugarik eman dute izena etxebizitza tasatuetarako

Bergarako San Antonio auzoan Etorlur Elkarte Publikoak sustatu dituen etxebizitza tasatuetan 206 lagunek eman dute izena. Izen horietako gehienak Bergarako udaletxean jaso dituzte, %90 Bergararren eskaerak izan dira.

Suradesa Debagoieneko Mankomunitateko Elkarteak ere jaso ditu izenak, etxebizitza tasatuen zozketan esku hartzeko. Guztira 45 izen hartu dituzte Suradesan. Eman dituzten datuen arabera, eskaera horiek guztiak Arrasatetik eta Oñatitik iritsi zaizkie.

Bestalde, oso gutxi izan badira ere, Debagoienetik kanpora ere interesa sortu dute San Antonioko etxebizitza tasatuek eta Gipuzkoako bizpahiru lagunek izena eman dute.



San Antonion egingo dituztenak Bergaran egiten diren lehenengo etxebizitza tasatuak dira. 30 etxebizitza egingo dituzte. Horietako bat minusbaliatuentzat izango da. Pertsona bakar batentzat logela bakarra izango duen etxebizitza bat egingo dute, 2 edo 3 lagunentzako bi logelako 20 eta, azkenik, 3 logelako 8 etxebizitza egingo dituzte.

# Numerosos turistas nos han visitado esta primavera

Bergara ha recibido gran cantidad de visitantes durante los días de fiesta de la Semana Santa y el puente del primero de mayo. La Oficina de Turismo ha ofrecido un amplio servicio de información y guía a todos aquellos que lo solicitaron. La mayoría de ellos han sido turistas, pero los bergareses también nos interesamos por el arte y la historia de nuestro pueblo.

En total se han acercado en las pasadas fiestas a la Oficina de Turismo 712 personas. Cabe destacar el aumento de los visitantes de Euskal Herria registrado este año , 251. Sin embargo la procedencia del Estado ha descendido, sobre todo de Cataluña y Madrid. Nos han visitado 292 personas.

Los extranjeros que han visitado Bergara han sido 41, 25 de los cuales eran europeos. Bergara, por lo tanto sigue teniendo atractivo para los que gustan de disfrutar del turismo interior y cultural. Es curioso que la mayoría de los visitantes no esperen encontrar semejante conjunto monumental y en general tan bien conservado. Es ese un comentario que se repite año tras año y que ahora también se ha producido, por supuesto, tras haber recibido la correspondiente información sobre la historia y el arte de la villa o tras haber seguido alguna de las numerosas visitas guiadas que se han realizado en el municipio. En las visitas guiadas realizadas han participako 197 personas.

La Oficina de Turismo de la localidad ha permanecido abierta durante un mes para la Semana Santa y el puente del primero de mayo. Tras una breve pausa primaveral, en verano abrirá de nuevo sus puertas para atender a todos aquellos visitantes que vengan de fuera y para animar a los bergareses a conocer mejor su pueblo.



# ¡Zorionak Ama izango zara!

Ama izan behar diren emakumeek liburu bat dute orain euskaraz, dituzten zalantzak argitzen lagundu eta aholkuak emango dizkiena. *Zorionak: ama izango* zara liburu eta DVDa kaleratu dituzte ibarreko udaletako Euskara sailek.

Guztira 1.500 ale argitaratu ditu Debagoeineko Mankomunitateak. Emaginek banatuko dute material hori doan ama izatekoak diren emakumeen artean. Bestalde, emaginek eurek ere lagungarri izango dute material hori.

Liburua egiteko orduan, bailarako euskara teknikariak ibarreko adituekin jarri ziren lanean. Hala, haurdunaldi aurreko eta osteko gaietako adituekin eta gai horietan esperientzia handia duten ibarreko emaginekin izan ziren elkarlanean. Haurdunaldiko zainketari buruzko informazioa, titia emateari buruzkoa eta haurrendako masaje eta zainketari buruzkoa ere bai. Guztia era erraz eta erakargarrian.

Aurrera begira, Euskal Herrira ere zabaldu nahi dituzte liburu eta DVDa.



## KZ gunea ekintzez beteta

Bergarako KZguneak ekintza eta ikastaro ugari eskaintzen dizkie herritarrei. Honako hauek dira:

* **Ikastaroak**
Interneten hasteko ikastaroak dira: web orrietan nabigatzea, informazioa bilatzea, posta elektronikoa e.a.

05-21etik 06-01era 09:00-11:00
05-21etik 06-01era 16:00-18:00
Ekainak 4tik 15era 11:00-13:00
Ekainak 4tik 15era 18:00-20:00
Ekainak 18tik 29ra 09:00-11:00
Ekainak 28tik 29ra 16:00-18:00

* **Comunidades virtuales**
KZgunea ofrece a las asociaciones, comunidades, clubes, grupos, etc... la posibilidad de disponer de su propia página web en Internet, de forma **totalmente gratuita**. Dispondrán de la ayuda de los tutores y medios materiales y organizativos para poder mantenerla e ir incorporando contenidos.

* **Herritarren txartela**
Doan eskura daiteke "Herritarren txartela". Sinadura digitala duen txartel pertsonala da eta on-line administrazioa egitea posible izango da. Kzguneetan nabiga-tzeko ere balio du.

* **IT Txartela**
IT Txartela es un Sistema de Certificación de Competencias Básicas en Tecnologías de la Información, que acredita los conocimientos que una persona tiene en la utilización de herramientas informáticas e Internet.

## Kirola udan

Uda garaian Agorrosinen bi alor nagusi antolatzen dira:
- Kanpo berdegunea
- Uda kanpainako ekintzak



**Kanpo berdegunea**
Uda garaira begira eta Agorrosingo bigarren fase bezala, Agorrosingo berdegunea irekiko da ekainaren 16an. 3.000 m2ko berdegunea da. Han eguzkia hartzeko eremuak egongo dira. Baita bazkaltzeko mahaiak eta egonlekuak ere. Kanpo komunak eta freskatzeko kanpo dutxak ere egongo dira. Zuhaitz eremu bat ere ipini dugu, eguzki galdaran kixkali nahi ez dutenentzat. Sarrera zuzena izango du tabernako terraza eta zerbitzuetara. Ekainaren 16tik irailaren 9ra bitartean zabalduko dute 10:00etatik 20:30ra.

| BI TXANDETAKO EKINTZAK 06/25-07/06 07/09-07/20 | TXANDA BAKARREKO EKINTZAK 07/02-07/27 |
|---|---|
| 3-4 urte: Haur igeriketa | 8-14 urte: Patin hockeya |
| 5-7 urte: Igeriketa, multijarduera, euskal pilota, patinajea | 10-14 urte: Batuka gazte |
| 8-14 urte: Igeriketa, multijarduera, tenisa | 15 urtetik gora: Patinajea, 3. adineko gimnasia, aretoko txirrinda, aerodance, batuka, pilates, aquaerobik, yoga |
| 11-15 urte: Piraguismoa (Urkuluko urtegian) | |
| 14 urtetik gora: Tenisa | |

**Uda Kanpainako ekintzak**
Izena eman nahi dutenek maiatzaren 21etik ekainaren 3ra bitartean egin behar dute. Aurten zozketaren sistema erabiliko da ekintzetan parte hartuko dutenak aukeratzeko.

# AGENDA

| MAIATZA | | | |
|---|---|---|---|
| 20 Igandea | Bergarako Musika Eskolaren Udaberriko Kontzertua | 12:30 | Udal Pilotalekua |
| 25, 26, 27, 28, 29 PENTEKOSTE JAIAK | | | |
| 31 Osteguna | "Delhitik Kathmandura bizikletaz" atxabaltarrak | 19:00 | Kultur Etxea |
| **EKAINA** | | | |
| 1 Ostirala | Gipuzkoako Eskola Arteko 27. Bertsolari Txapelketa | | Udal Pilotalekua |
| 2 Larunbata | Debagoieneko 3. Trikitixa Eguna | | |
| 3 Igandea | Ipuin Kontaketa Saioa Egoitz Lasa "Kalabazatik Plazara" | 17:00 | Agorrosin |
| 9 Larunbata | Xamatzen Jaia | | Bergarako Erdialdea |
| 28 Ostirala | Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua | 20:00 | Bergarako Parrokia |
| 29 Ostirala | Udal Musika Bandaren Kontzertua | 12:30 | Espoloia |





| Egitaraua gazteentzat | | |
|---|---|---|
| Antzerki tailerra | Arrizuriagan | Maiatzeko astearteetan 18:00-20:00 |
| Hankapalo ikastaroa | Zabalotegiko Frontoian | Maiatzeko larunbatetan 16:00-19:00 |

**Ciclo "Relación entre el cine y la historia"**

| Fecha | Conferenciante | Título | |
|---|---|---|---|
| 23/05/2007 | Santiago de Pablo | La guerra civil de 1936 en Euskal Herria | C |
| 19/09/2007 | Juan Madariaga | Frankisten imaginarioaren eraikuntza: espainolada | E |
| 24/10/2007 | Iñigo Marzabal | Vietnamgo gerra zineman | E |
| 21/11/2007 | Juan Madariaga | La difícil convivencia de entidades encontradas: los Balcanes | C |

# Pentekoste Jaiak 2007

MAIATZAK 25, OSTIRALA

**20:00 Jaien hasiera**. Etxafuegoak eta Bitorianatxoren jaitsiera. Udal Musika Bandaren kalejira

**20:30** Txatunga Bembe taldekoekin **kalejira.** Matxiategin **Barraken irekiera**. Bideberrin **Txoznen irekiera**

**22:30 Kontzertua** Bideberrin *BELCEBLUES, RED HOUSE* eta *12 TRIBU*rekin. **Kalejira** *0'7 CABRIOLAS Y DIABLITOS* taldearekin. **Su ikuskizuna** plazan hasita. **Erdizka Lauetan** erromeria San Martin plazan



MAIATZAK 26, LARUNBATA

**09:00 Bigantxak** Seminarioko patioan. **XXVII. Haur eta Gazteen Plastika Sariketa** San Martin plazan

**10:00 Diana** Bolutik Kobok dultzaineroak, Labegaraietatik Udal Txistulari Banda eta Oxirondotik Iosu eta Iokin trikitilariak. Herriko plazan elkartu eta Mizpirualdera bisita. **Euskadiko Banakako Xake Txapelketa** Agorrosingo ekitaldi aretoan.

**11:00** Herriko elkarteen arteko **Bakailao Lehiaketa** San Martin plazan

**13:30** Plastika Lehiaketako **Sari banaketa** San Martin plazan

**16:00** Haur eta gaztetxoentzat **Zirko Tailerrak** Munibe plazan. **Xake Azkarreko Txapelketa** Agorrosinen

**18:15 Bonba Japoniarrak** San Martin plazan eta Erraldoi, Kiliki eta buruhandien kalejira

**19:00** Gaztetxoentzako **Zezentxoak eta Poniak** Seminarioko patioan

**20:00 Dantza** *ZPEIZ MUKAKI* dantzarangakoek 80. hamarkadako euskal rocka, txaranga eta aurreskua uztartuko dituzte

**22:30 Kontzertua** Bideberrin *ABY KEM, CIRCUS A.D., FLY SHIT* eta *RABIA POSITIVA*

**23:00 Dantzaldia** San Martin plazan *GEISER BAND* taldearekin

**Euskadiko Open Motokross txapelketa** Eginoko zelaietan

MAIATZAK 27, IGANDEA

**08:00 Alborada** txistulariekin

**09:00 Bigantxak** Seminarioko patioan

**11:00 Meza Nagusia** San Pedro Parrokian

**11:30 Bike Trial Erakustaldia** Benito Ros munduko txapeldunaren eskutik. San Martin plazan. **Skate festa** Labegaraietan

**12.30 Kontzertua** Udal Musika Bandarekin. Espoloian

**16:00 BTLS 7-Opena, Futbolin eta Dardo Txapelketa** Munibe plazan.
**16:30 Txontxongiloak** *KILIMA* taldearekin. Simon Arrieta plazan

**17:00 Pilota Partida Profesionalak** Udal Pilotalekuan

**17:30 XXX. Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketa** 16 urtez azpikoentzat. San Martin plazan

**19:00 Bergarako Errekortadoreak** zezen plazan

**22:00 Ikuskizuna** "BANDÉ DE PALACÉ" *DEABRU BELTZA* taldearekin San Martin plazan hasita

**22:30 Kontzertua** *DEFAULT, FBA* eta *LORD WITCH* taldeekin. Bideberrin

**23:00 Dantzaldia** *NUEVA ALASKA* taldearekin. San Martin plazan

MAIATZAK 28, ASTELEHENA

**09:00 Bigantxak** Seminarioko patioan. **Errekortadoreen Eskola Ibiltaria**

**10:30 Plater Tiraketa** Gorlako Irubide zelaian

**11:00 Barrakak Merkeago**

**12:30 Kontzertua** *TARANTELLA* taldearekin. Espoloian

**13:00 Kuadrilen Kalejira** *INCANSABLE*sekin

**14:30 Herri Bazkaria** San Martin plazan

**17:00 Jokoak** kuadrilentzat. **Mr eta Ms Jator Lehiaketa**

**17:30 "Bergara Hiria" Pilota Txapelketako Finalak** Udal Pilotalekuan

**19:00 Errekortadore Eskola Ibiltaria** zezen plazan

**19:30 Kalejira**



**22:30 Kontzertua**
*NO CREW, AZKAITER PELOX, EMON* eta *TRIKIZIO.* Bideberrin

**23:00 Erromeria**
*ENE BADA* taldearekin.
San Martin plazan. **Camp Dantzaldia** Espoloian TARANLELLA taldearekin

MAIATZAK 29, ASTEARTEA
UMEEN EGUNA

**09:00 Bigantxak** Seminarioko patioan

**11:00-13:00** Pentekosteetako kartel lehiaketara aurkeztutako **Kartelen erakusketa**

**11:30-13:30 Herri Trena** Fraiskozuri plazatik. **Haurrentzako Jolas Parkea** Ipintza Ilko patioan

**12:30 Herri Kirolen Erakustaldia eta Desafioa** San Martin plazan

**16:30-18:30 Herri trena eta Jolas Parkea**

**18:45 Zirkoa** *ZORIONAK! ZIRIKA ZIRKUS.* Simon Arrieta plazan

**19:00 Errekortadoreak** Zezen plazan

**20:15-21:00** eta **22:30-24:00 Dantzaldia** *TXIMELETA* taldearekin. San Martin plazan

**24:00 Bitorianatxoren Igoera eta Agurra** San Martin plazan

**24:30-01:00 Dantzaldia** *TXIMELETA* taldearekin. San Martin plazan

EKAINAK 3, IGANDEA

**"LXXI. Pentekoste Saria" Txirrindulari lasterketa** 23 urtez azpikoentzat. Irteera San Lorentzon

## Nuevas adjudicaciones para el Tren de Alta Velocidad

El Tren de Alta Velocidad está cada día más cerca. El Ministerio de Fomento ha adjudicado dos tramos de Debagoiena en marzo. Concretamente el recorrido entre Arrasate, Aramaio y Eskoriatza, divivido en dos adjudicaciones.

El tramo que unirá Arrasate y Aramaio recorrerá 3'39 km y tiene un presupuesto de 57.857.121 euros y un plazo de ejecución de 30 meses. SACYR, Construcciones Amenabar y Proyectos son las empresas adjudicatarias.



El tramo entre Aramaio y Eskoriatza recorrerá 5'58 km y el Ministerio de Fomento destinará 80.905.562 euros para financiar ese tramo que ejecutarán Acciona Infraestructuras y Excavaciones Viuda de Sainz.

Esos tres Ayuntamientos disponen de los planos correspondientes a sus municipios. Los ciudadanos interesados podrán consultarlos, pero no podrán presentar alegaciones.

En Arrasate, además de los planos del tramo adjudicado, disponen también de los correspondientes al tramo que llegará hasta Elorrio. Este tramo recorrerá 4'44 km, 3'16 de los cuales corresponden al tunel de Udalatx.

## Garraio publikoa bateratzeko ahaleginak Gipuzkoan

Gipuzkoan garraio publikoa bateratua izan dadin urratsak ematen hasi dira eta Debagoieneko Mankomunitateak ere horretan esku hartu du. Hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Agintaritzan sartzeko erabakia hartu zuen martxoan. Enpresa horren kapital sozialaren %6ko partizipazioa izango du, 18.000 euro zehazki.



Hasiera batean Gipuzkoako Lurralde Agintaritzak duen betebeharra da garraio publikoaren titularitatea duten Administrazioen eta ez dutenen arteko lankidetza bultzatzea. Etorkizunean, berriz, helburu nagusia Gipuzkoa osoa hiri bat bezala hartzea izango denez, Lurralde Agintaritzaren betebeharra garraio guztia koordinatzea eta antolatzea izango da. Izan ere, azken helburua garraio mota guztiak batzea eta koordinatzea izango da, hau da, trenbide sarea, tranbiarena eta autobusen zerbitzuak elkarlanean jartzea.

## El programa Bizigune ha alquilado 52 viviendas en Debagoiena

A tenor de los datos facilitados por Suradesa, 52 son las viviendas alquiladas en Debagoiena mediante el programa Bizigune. Sin embargo las personas apuntadas en Etxebide en demanda de vivienda en alquiler son 713.

Aún no existe en nuestra comarca un censo de viviendas vacías. Explica Suradesa que es difícil hacerlo, ya que los empadronamientos no son siempre regulares y los alquileres no siempre se registran. En Bergara el Ayuntamiento dispone del dato de 347 vivendas vacías en el municipio. En Arrasate es clara la influencia de la Universidad y se calcula que sean 400 las viviendas vacías.

En Marzo ha visitado Debagoiena un autobús con información detallada del programa Bizigune, concretamente Bergara y Arrasate han sido las localidades visitadas.

Es un programa que ofrece claras ventajas para alquilar viviendas vacías. Al propietario le garantiza el cobro del alquiler mensual, ya que se lo abona directamente el Gobierno Vasco. Además le garantiza que recuperará la vivienda en buenas condiciones. Con el añadido de que le ofrece la posibilidad de realizar reformas en la vivienda. Al inquilino le ofrece la posibilidad de acceder a una vivienda digna, mediante alquiler social.

Suradesa ofrece amplia información sobre el programa Bizigune y cursa los trámites necesarios.

## Mundumira Aretxabaletan

Hirugarren aldiz, Mundumira jaialdia dugu Debagoienean, ekainaren 1, 2 eta 3an, Aretxabaletan aurten. Munduko kulturen festak artisautza, azoka, munduko zaporeak, bidezko merkataritza, mendiko azoka, mendi igoerak, erakusketak, diaporamak, haurrentzako antzerkiak, graffitiak, dantzak, kale antzerkiak eta ikuskizun ugari eskainiko ditu.

Mundumira jaialdiaren ardatzetako bat musika da eta aurten ere aukera zabala izango da. Galiziako *Festicultores Troupe*, Kataluñako *Kiko Veneno*, Indiako *Jaipur Kawa Brass Band*, Kubako *Echa paká*, Brasilgo *Trío Forróbódó*, Arabiako *Albala*, Palestinako *Dam Hip Hop,* Euskal Herriko *Tomás San Migel,* eta Bulgariako *Romaní Chavé,* besteak beste.



## Acuerdos más importantes adoptados por el Pleno

### 2007ko otsailaren 26ko bilkura

- Obra eta Zerbitzuetan "SIG"-a jarri eta garatzeko lanak 11.254,25 eurotan adjudikatzea.
- Udal azokan Euskaltegia jartzeko egokitzapen lanen proiektu teknikoaren idazketa 11.893 eurotan adjudikatzea.
- Udal pilotalekuaren dohaineko erabilera 2007an Asperi zeditzea.

### 2007ko martxoaren 26ko bilkura

- Bergarako Urteaga kaleko A-16B eremua berriaren hirigintza garapenerako "Madura Etxegintzak S.L." enpresarekin adostutako hitzarmena behin betiko onartzea.
-Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkaturiko esparruetan kokatutako lokalen erabilpena, tertziariotik etxebizitzara aldatzeko ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena eman eta jendaurrean jartzea.
- Kiroldegiko umeen jolas-parkeko joko berrien 5.319,95 euroko aurrekontuaren onartzea.
- Errege Seminarioko Auditorium-aren akustikaren azterlan teknikoa eta egokitzapenaren idazketa 6.266,53 eurotan adjudikatzea.
- Errege Seminarioko Auditorium-eko lur mugimenduaren eta zimentazioaren azterlan geoteknikoaren idazketa kontratatzeko baldintza administratiboen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 29.800 eurokoa da.
- Tele-laguntza zerbitzua ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzteko hitzarmenaren onartu eta zerbitzuaren udal erregelamenduari hasierako onarpena ematea.
- 36-2 exekuzio unitateko xehetasun azterlanari behin betiko onarpena ematea.
- Sprilur-ek Larramendin gune industrial bat garatzeko sinatuko litzatekeen hirigintza hitzarmena jendaurrean jartzea.

### 2007ko apirilaren 2ko bilkura

- 36-2 exekuzio unitateari buruzko hirigintza hitzarmena jendaurrean jartzea.

### 2007ko apirilaren 16ko bilkura

- Udalerriko udal planeamenduaren errebisiorako, plan orokorrari hasierako onarpena eman eta jendaurrean jartzea.
- Bergarako "Algodonera" inguruko A-18an etxebizitza eremu berriaren garapenerako hitzarmena behin betiko onartzea.

### 2007ko apirilaren 23ko bilkura

- Itxumendi urtegitik ur aprobetxamendua bermatzeko Antzuolako Udalarekin eta "Irumendi elkartea C.B."rekin sinatuko litzatekeen hitzarmena onartzea.
- Ondartza eta Tejeriako biribilgune eta berdeguneak apaindu eta loreztatu eta artatzeko arduraren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiarekin sinatuko litzatekeen hitzarmena onartzea.
- Elorregi auzoko frontoiko estalkiko polikarbonatoko plakak aldatu eta berriak jartzea 11.408 eurotan adjudikatzea.

### 2007ko apirilaren 26ko bilkura

- 40-A hirigintza eremuan (San Lorentzo auzoan) alokairuan 68 eta 84 arteko babes ofizialeko etxebizitzen eraikitzea ahalbidetzen duen udal lursailaren salmenta burutzeko baldintza administratiboen plegua onartzea.

### Pleno del 26 de febrero de 2007

- Adjudicación de los trabajos para implantar y desarrollar el SIG en el departamento de Obras y Servicios, en 11.254,25 euros.
- Adjudicación de la redacción del proyecto técnico de los trabajos de adecuación a realizar en el mercado municipal para trasladar allí el Euskaltegi, en 11.893 euros.
- Cesión gratuita del uso del frontón municipal a la empresa Aspe durante el 2007.

### Pleno del 26 de marzo de 2007

- Aprobación definitiva del convenio acordado con la empresa "Madura Etxegintzak S.L." para el desarrollo urbanístico de la nueva zona A-16B de la calle Urteaga de Bergara.
- Aprobación inicial y exposición al público de la modificación de la ordenanza reguladora de las actuaciones para el cambio de uso, de terciario a residencial, en locales de planta baja existentes en suelo urbano residencial.
- Aprobación del presupuesto de los nuevos juegos a colocar en el parque infantil del polideportivo, que asciende a 5.319,95 euros.
- Adjudicación de los trabajos de redacción del estudio técnico sobre la acústica del Auditorium del Real Seminario y del proyecto técnico para la adecuación acústica integral, en 6.266,53 euros.
- Aprobación del pliego de condiciones administrativas para la contratación de los trabajos de redacción del estudio geotécnico sobre los movimientos de tierras y cimentación a realizar en el Auditorium del Real Seminario. La base de licitación es de 29.800 €.
- Aprobación del convenio para delegar en la Diputación Foral de Gipuzkoa la prestación del Servicio de Tele-asistencia, y aprobación inicial de reglamento municipal de dicho servicio.
- Aprobación definitiva del estudio de detalle de la unidad de ejecución 36-2.
- Exposición al público del convenio urbanístico a suscribir con Sprilur para el desarrollo de una zona industrial en Larramendi.

### Pleno del 2 de abril de 2007

- Exposición al público del convenio urbanístico para el desarrollo de la unidad de ejecución 36-2.

### Pleno del 16 de abril de 2007

- Aprobación inicial y exposición al público del plan general para la revisión del planeamiento municipal.
- Aprobación definitiva del convenio para el desarrollo urbanístico de la nueva zona residencial del área A-18 en la zona de la "Algodonera" de Bergara.

### Pleno del 23 de abril de 2007

- Aprobación del convenio a suscribir con el Ayuntamiento de Antzuola y "Irumendi Elkartea, C.B." para el aprovechamiento del agua del manantial Itxumendi.
- Aprobación del convenio a suscribir con la Dirección General de Gestión y Planificación del Departamento para las Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para adecentar y adornar con flores la rotonda y las zonas verdes de Ondartza y Tejeria asi como para el mantenimiento de las mismas.
- Adjudicación de los trabajos para sustituir las placas de policarbonato de la cubierta del frontón en el barrio de Elorregi, en 11.408 euros.

### Pleno del 26 de abril de 2007

- Aprobación del pliego de condiciones administrativas reguladoras de las bases para la enajenación de la parcela de titularidad municipal que posibilita la edificación entre 68 y 84 viviendas de protección oficial (VPO) en alquiler en el área 40-A (en el barrio de San Lorentzo).

# Goiauzoa

## Auzoaren kokapena, historia eta monumentuak

Santa Marina elizaren inguruetatik abiatu eta azkar batean San Joxepe baserri-dorretxera iristen da. Arkitektura aldetik ez du ezer nabarmentzekorik, baina historiak dio izen bereko ermita izan zela leku horretan. Hala du idatzita horma batean baserriak.



Aurrerago egin eta San Martzial ikusiko dugu, toki ederra eta gerturatzera gonbidatzen duena. Mahaiak ditu larreetan, inguruko paraje ederrarekin gozatzen laguntzeko. San Martzial eguna ekainaren 29a da eta aintzineko jai giroa berreskuratu da azken urteotan. Ekainaren 29a igandea izanez gero, egunean bertan egiten da erromeria. Hala ez bada, uztailaren lehenengo igandeerako uzten da ospakizuna.

Bergarako ermita gehienek ahalmen bereziren bat zuten eta San Martzialgo ermitara "axipula" sendatzera joaten ziren fededunak.

Aintzinatik joaten ziren fededunak San Martzialera, ermita XVI. mendekoa delako. Oin angeluzuzena du eta aretonabe bakarra. Arkupeak ere baditu eta barrura sartzeko erdi-puntuko arku dobeladuna duen atetik sartu behar da. Barruan sartuta, ikusten da hormak kareztatuta eta lauzaz estalduta dituela. Sabaia, berriz, egurrezkoa da eta egur guztia du agerian. Hiru aldare ditu: erdikoak San Martzialen irudia duen erretaula txiki eta modernoa du, ezkerrekoan San Frantzisko Asiskoaren eskultura neoklasikoa ikusten da eta eskubikoan Santa Klararen mihisea. Herriko artisten lanak ere ikus daitezke, Agirreolea margolari bergararraren lanak ikus daitezke presbiterioan.

San Martzialetik gora eginez gero, harlanduak eta armarriak dituzten bi baserri ikus daitezke, zuhaizti eder bat igaro ondoren.

Lamariñotorrea da bat. Lau isuri dituen baserri ederrak harlanduak ditu fatxadetako angeluetan. Ezkaratzean sartzeko erdi-puntuko bi arku igaro behar dira. Etxera sartzeko, berriz, puntu erdiko dobeladun ate bat. Armarria portadaren erdian dago.

Zupide baserriak bi isuriko teilatua du. Fatxada batean lehio bikoitz bat du eta arku zorrotzeko beste bat ere bai. Hala ere, Zupidek aintzinako egitura galdu du.

Aurrera eginez gero, Surraga Gurutzera iristen da. San Martin Agirreren omenez egin zuten eta eskualde osoan ikusten da.



## ( Udal zerbitzuen telefono eta faxak )


Ayuntamiento:

San Martín de Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Telf.: 943 77 91 00
Fax: 943 77 91 63
E-mail: bergara@bergara.net


ALKATETZA
tel: 943 77 91 01
fax: 943 77 91 63

ARTXIBOA
tel: 943 77 91 32
fax: 943 77 91 63

LIBURUTEGIA-KULTURA ETXEA
tel: 943 77 91 62
fax: 943 77 91 69

ANGIOZARKO LIBURUTEGIA
tel: 943 76 16 19

OSINTXUKO LIBURUTEGIA
tel: 943 76 23 76

GIZARTE ONGIZATEA
tel: 943 77 91 65
fax: 943 77 91 63

HILERRIA
tel: 943 76 27 81
fax: 943 77 91 63

ENPRESA-BATZORDEA
tel: 943 77 91 73
fax: 943 77 91 63

KULTURA
tel: 943 77 91 58
fax: 943 77 91 69

KIROLAK
tel: 943 77 91 67
fax: 943 77 91 63

EUSKARA
tel: 943 77 91 66
fax: 943 77 91 63

INFORMATIKA
tel: 943 77 91 37
fax: 943 77 91 63

KONTUHARTZAILETZA
tel: 943 77 91 64
fax: 943 77 91 63

OBRA ETA ZERBITZUAK-UDAL BILTEGIA
tel: 943 77 91 52
fax: 943 77 91 20

ONDARE ARTISTIKOA
tel: 943 77 91 62
fax: 943 77 91 69

UDALTZAINGOA
tel: 943 77 91 06
fax: 943 77 91 63

KIROLDEGIA
tel: 943 76 56 41
fax: 943 77 91 63

IGERILEKUAK
tel: 943 77 70 95
fax: 943 77 91 63

IDAZKARITZA
tel: 943 77 91 00
fax: 943 77 91 63

HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA
tel: 943 77 91 68
fax: 943 77 91 56

**www.bergara.net**


L.G./D.L.SS-1242/04

Editatzailea: Bergarako Udala
Egilea: Verbax Comunicación y Relaciones Públicas
Tirada: Dohainiko 5.500 ale
Banaketa: Etxez-etxe